



GIPUZKOAKO PARTIDA AZKARREN

TALDEKAKO TXAPELKETA 2023

TXAPELKETAREN OINARRIAK

1. GXFn federatuta dauden klub guztiek parte hartu ahal izango dute.
2. Jokalari batek txapelketaren hasieran federatuta dagoen klubeko talde batean bakarrik jokatu ahal izango du. Arau hori bete ezean, araua hautsi duen taldea kanporatu egingo da.
3. Txapelketa urriaren 7an jokatuko da.
4. Txapelketa antolatzeko baimena duen klubean jokatuko dira partidak. Txapelketaren ordutegia deialdiarekin batera jakinaraziko da.
5. Joko-erritmoa 3 minutukoa izango da, eta 2 segundo gehituko zaizkio jokaldi bakoitzeko.
6. Txapelketaren joko-erritmoari dagokionez, FIDEko xake-arauak aplikatuko dira.
7. Txapelketa jokatzeo sistema, alegia, Liga (Round Robin) edo suitzarra, parte hartuko duten taldeen kopuruaren arabera erabakiko da, baita txanda kopurua ere.
8. Partidak lau taulatan jokatuko dira. Talde bakoitzak gutxienez lau jokalaria izango ditu.
9. Lehiaketa hasi aurretik, talde bakoitzak bere jokalarien indar-ordena emango dio epaileari. Ezin izango da indar-ordena hori txapelketan zehar aldatu. Partida batean talde batek 4 jokalaria baino gutxiagorekin jokatzen badu, jokatzen dutenek lehen tauletan jokatu beharko dute, eta azkenak libre utzi.
10. Aurreko paragrafoan adierazitakoa bete ezean, taldeak galdu egingo du azkenik jokatu duen jokalaria artikulua hori betez gero jokatu beharko zukeen taularekin bat ez datorren tauletan.
11. Klubek nahi adina talde aurkeztu ahal izango dituzte. Epailea saiatuko da klub bereko taldeek lehen txandetan joka dezaten, ahal den neurrian.
12. Joko-aretoan ez da analisirik onartuko.



13. Partidan zehar, debekatuta dago jokalaria batek joko-eremuan telefono mugikorra edo xake-jokaldiak iradoki ditzaketen komunikazio elektronikoko gailurik edukitzea. Hala ere, gailu horiek jokalariaren poltsan edo motxilan gordeta egotea edo joko-mahaiaren gainean edukitzea baimentzen da, betiere gailua erabat deskonektatuta badago.
completamente desconectado.
- Jokalaria ezingo ditu poltsa, motxila edo gailu horiek joko-eremuan eduki epailearen baimenik gabe. Bistakoa bada jokalaria batek joko-eremuan gisa horretako gailu bat duela, partida galduko du. Aurkariak irabaziko du partida.
- Partida hasi aurretik, jokalaria guztiek jakinarazi beharko diote aurkariari ea poltsan edo motxilan telefono mugikorrik edo xake-jokaldiak iradoki ditzaketen beste komunikazio elektronikoko gailurik duten joko-eremuan.
- Hori guztia indarrean dauden FIDEko Xake Arauen eta FIDEko Epaile Batzordearen aginduaren arabera, hemen eskuragarri: [http://arbiters.fide.com /](http://arbiters.fide.com/)
14. Jokalariak ezingo dute joko-aretoetik atera beren partida jokoan dagoen bitartean, epaile-taldeko kideren baten baimenarekin ez bada. Hark, txandaren egoera orokorra edo irteteko beste baimen batzuk baloratu ondoren, ateratzeko baimena ematen dion ala ez erabakiko du. Jokalariak ezingo dute analisi-gelara sartu partidak abian dauden bitartean.
15. Txapelketa sistema suitzarraren bidez jokatzeko bada, puntu gehien lortzen duenak irabaziko du, kontuan hartuta irabazitako partida bakoitzak 2 puntu batzen dituela, berdintutako bakoitzak 1 eta galdutako bakoitzak 0. Puntuaketa berdinduz gero, berdinketa hausteko sistema hauek aplikatuko dira hurrenez hurren:
- Sonnenborg-Berger, taldeka
 - Bucholz, emaitzarik txarrena kenduta
 - Progresiboa, berdinketa-hauste guztiekin (azken ondorioak)
 - Taulako puntuen batuketa
 - Garaipen-kopurua
 - Zozketa



16. Txapelketa Liga sistemaren bidez (Round Robin) jokatzeko bada, taula-puntu gehien lortzen dituen taldeak irabaziko du.

Puntuaketa berdinduz gero, berdinketa hausteko sistema hauek aplikatuko dira hurrenez hurren:

a) Partida bakoitzeko puntu batura (2 puntu irabazitako bakoitzeko, 1 berdindutako bakoitzeko, 0 galdutako bakoitzeko).

b) Sonnenborg-Berger, taldeka

c) Berdindutako taldeen arteko emaitza partikularra

d) Emaitza partikularrean berdinketa gertatuz gero, lehenengo taulako irabazlea; berdinketa edo "tablak" gertatuz gero, bigarren taulako irabazlea, etab.

Taula guztietan berdinketak gertatuz gero, lehenengo taulan beltzekin jokatu duena.

Zozketa

C atala aplikatzearen ondorioz berdinduta dauden taldeen kopurua gutxitzen bada, atal hori berriro aplikatuko da berdinduta jarraitzen dutenen artean.

17. Epaileak txanda hasteko agindua eman eta 5 minutura taulara agertu ez den jokalaria partida galduko du, ez bertaratzeagatik.

18. Izendatu eta ordaindu behar dituela uste duen txapelketa-epaileak izendatu eta ordainduko ditu GXFk.

19. Sariak:

1. Garaikurra eta lau domina
2. Garaikurra eta lau domina
3. Garaikurra eta lau domina

20. Txapelketan parte hartzen dutenek baimena ematen dute antolatzaileek ekitaldia behar bezala zabaltzeko egokitzat jotzen dituzten komunikabideetan beren datu pertsonalak argitaratzeko (emaitzak, sailkapenak, partidak, argazkiak, etab.).

21. Txapelketan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek eta aplikatu beharreko gainerako araudiak onartzea eta betetzea.